

UDALETXERA EUSKARAZ

Mikel UGALDE

*Itzak bakarrik indarbe dira
egipenak ziñaldari,
nor zelako dan bere egipenak
erakusten dute argi.*

*Euskaldun batek Euskal Herrian
bati erderaz badagi,
alperrik esan "soy bascongado"
erdaldun utsa dek ori.*

(Rafael Bereziartuari entzuna)

Bai, bai, Udaletxera ere euskaraz jotzeko bidean zabalzen ari dira. Euskaldunok bertara euskaraz zuzentzeko, harremanak euskaraz mamitzeko egokiera izango duzu, horretarako pausoak ematen ari dira. Udaletxearekin euskaraz konpontzeko modua eskura egongo da.

— Ni Udaletxera arazoak konpontzera bakarrik joaten naiz. Zenbat eta gutxiago hobere. Euskaraz noala eta ez du muturrik ikusteko gogorik.

Bai, halaxe da. Ohiturak ez dira gauetik goizera aldatzen, Administrazioa, leihatila, papera, tinbrea, burokrazia, ahaztutako fotokopia, guztia aspergarri da. Egia. Baina erdaraz joan ordez, normaltasun osoz euskaraz egin dezakezu.

LEGEA GURE ALDE

Udaletxean, Aldundian, Eusko Jaurlaritzan, Gobernu Zibilean, Euskal Autonomia Elkartearen edonongo Administrazioetan badugu euskaraz jarduteko eskubiderik. Euskararen Legeak horrela onartzen du bete betean. Euskaldunak bere hizkuntza propioan hitzegiteko eskubidea baduela aitortzen du argi eta garbi. Beste zenbait lege eta arau bide honetatik zuzendu dira guzti hau aintzat har dadin. Lege aldetik ez dago inongo oztoporik, alderantziz baizik. Garbi dago.

— Bai, bai. Legea nere alde egongo da beharbada, baina gogoan behar da zenbait tokitan euskaraz joateko. Oraindik ere "hable en cristiano" ete horrelakoak entzun egiten dira. Gogoz kontra joaten naiz horrelako tokitara eta lehenbailehen alde egin ezkerre hobere.

Ez da arritzekoa. Etxe ofizial batetara sartzeak halako zimikoa egiten digu, beldur apur bat eman ere bai. Zorionez, funtzionarien jarrera lehen ez bezalakoa da. Baina halaz ere gauzak konpondu bitarteko onik ez dugu izaten. Egia da. Gauzak aldatu egin behar dira, ordea. Udaletxetik hasia da erosoena.

GARRANTZI HAUNDIKOA

Ez pentsa kapritxo hutsa denik. Garrantzi handiko kontua da. Udaletxetan euskara sartu, girotu eta erabiltzea lortzen baldin bada pauso hauek emango da. Euskararen onerako izango den aurrerapauso garrantzitsua. Gero eta euskara gehiago sartzen ari da eskoletan, gero eta diru gehiago sartzen da euskal telebistan eta komunikabideetan. Orain euskaraz hitzegitea, idaztea, erabiltzea, da kontua. Ez dugu gure hizkuntza sukualde txokotan bakarrik ikusi nahi. Euskaraz bizi nahi dugula eta, ados egongo zara.

— Horrela da. Euskararen alde nago ni neu ere. Baina ez dakit, euskaraz hizketan hasi eta udal langileak erdalduna

baldin bada, ni neu lotsatzen naiz. "No entiendo" zapla botako dizu batere lotsarik gabe. Tokitan gaude oraindik!

Halaz ere garrantzi handikoa da, beste udaletxetan hasi dira, aurrera doaz. Euskararen aldeko erabakiak hartzen ari dira, eta ez herri euskaldun-euskaldunetan bakarrik. Hor dago koska. Batzuk aurrera egingo dute euskararen bideetatik. Errenteriako ez da atzera geldituko. Horretarako, ordea, bultzatzea egin behar da. Euskaldunok euskaraz egiten ez baldin badugu ez dute Udaletxean euskaraz lanik egingo, ez dute euskaraz erantzuten lanik izango. Eta euskaraz lana egiten bada gero eta jende euskaldun gehiago beharko dute, eta lana eskatzerakoan euskara baliagarria izango da eta jendeak euskara ikasteko zaletasun gehiago erakutsiko du.

— Ez dakit esne-sailtzaile ameslariaren kontuekin ez ote zaren ari. Errazegi ikusten dituzu gauzak. Uste ustelaren usain hartzen diot.

Gure esku dago neurri handi batetan. Ohitura kontua da. Euskaraz hitzegitea ohitu eta gero zaila izan ohi da erdarara aldatzea. Ohitura landuz goazen neurrian euskaraz Administrazioan ere aurrera egin dezake.

PLAN BEREZIA

Hizkuntza joerak eta jarrerak ez dira gauetik goizera aldatzen. Horretarako udal langile askok euskara ikasi behar du, lehenago dakitenek hobetu, euskara lanerako erabili. Bost urtetarako plan bat egin da eta udal langileek, ohizko lanordutan, jorala berdin berdin irabaziz, euskara ikasteari ekingo diote. Lau maila daude, euskara arruntan jardun nahi duenak lehenengo biak nahiko izango ditu ahozko zein idatzizko harremanetarako. Beste zenbait lan egiteko EGAren antzeko mailarekin ere ez dute aski izango. Plana martxan dago, diru asko sartu da, gehiagi beharbada erdibidean gelditzeko. Ez dago horretarako lujorik.

Jendea euskaraz ikasten jartzea pauso bat izan da. Baina bestea gure esku egongo da. Lasai lasai joango gara edozein enplegatuek eta gure lehen agurra euskaraz lutzuko diogu. Gure solaskidea erantzuteko gai ez baldin bada beste norbaiten laguntza eskatuko du, moldatuko da. Normaltasun osoz horrelatsu jokatzeko baldin bada ohiturak finkatuz joango dira.

— Legea nere alde egonagatik, euskaraz joateagatik inoiz purrustadarik agoantatu beharren aurkitzen banaiz nork lagundua izango al dut?

Euskaldunok minoria bat baino ez gara Euskal Herrian.

BORONDATEA BEHAR

Euskara salbatzeko legearen babes behar da, baina legeak bakarrik ez du euskara aurrera aterako. Borondatea behar da luzarorako apustu honetan. Borondatea alderdi politikoetan, etxe barruko harremanetan euskara gehiago erabil dezaten. Borondatea udal hauteskundetara jende euskalduna aurkezteko, euskararen alde lan egingo duen jendea aukera dezagun. Borondatea arduradun eta goi teknikariek euskara erabiltzeko, Borondatea telefonista eta harrera arduradunen baitan lehen hitza euskaraz egin eta besteak euskaraz jarrai dezaten animatzeko. Borondatea gure aldetik, errazera jo gabe, gure hitza euskaraz zuzentzeko, inprimaki eta abar euskaraz betetzeko.

Luzarorako apustua da, urtetako lana. Gu ez bezala, erosoago aurkituko dira euskaraz hazi eta hezi diren gazteak. Gaztetatik landu behar da gauzak euskaraz betetzeko joera testu elebidunetan euskara hautatzeko ohitura.

Zenbaitentzat amets hutsa izango da, utopia. Besterentzat, ordea, esperantza berri baten abiapuntua.